



Onespena ematea “Zenbait artikulua saltzeko aplikagarri diren prezio publikoak onesteari” buruzko Foru Gobernu Kontseiluaren foru dekretu proiektuari.

Ekainaren 11ko 259/2019 Foru Aginduaren bidez, hasiera eman zitzaion Arabako 2000 Natura Sareko zenbait sustapen artikuluren prezio publikoak onesteari buruzko Foru Gobernu Kontseiluaren foru dekretu proiektuari.

Foru dekretuaren proiektu horren xedea da prezio publikoak ezartzea Arabako 2000 Natura Sareko zenbait sustapen artikulua saltzeko, eta alderdi hauek arautzea:

1. artikulua.- Lotuta dagoen jarduera eta zenbatekoa.
2. artikulua.- Ordaintzera behartuta daudenak.
3. artikulua.- Ordaintzeko beharra eta modua.
4. artikulua.- Kudeaketa eta administrazioa.
5. artikulua.- Indarrean jartzea.

Foru Gobernu Kontseiluaren maiatzaren 23ko 29/2017 Foru Dekretuaren 12. artikulua, izaera orokorreko xedapenak egiteko prozedura onesten duenak, ondokoa arautzen du: “testu arauemaileen proposamenak idatzi ondoren, prozedura hasteko ebazpena eman duen organoaren aurretiazko onarpena jaso beharko dute proposamenok, bidezkoak diren negoziazio, entzunaldi eta kontsulta izapideei ekin baino lehen.”

Horregatik, eta dagozkidan ahalmenak erabiliz, hau

XEDATZEN DUT:

Lehenengoa. Onespena ematea Arabako 2000 Natura Sareko zenbait sustapen artikulua saltzeko aplikagarri diren prezio publikoak onesteari buruzko Foru Gobernu Kontseiluaren foru dekretu proiektu honi, zeina eransten baita ebazpen honen eranskin gisa.

Bigarrena. Foru Gobernuaren Kontseiluaren Arabako 2000 Natura Sareko zenbait sustapen artikulua saltzeko aplikagarri diren prezio publikoak onesteari buruzko Foru Gobernu Kontseiluaren foru dekretu proiektuaren zirriborroa prestatzeko prozedura izapidetzeko kudeaketa lana Ondare Zerbitzutik bideratzea, Ingurumen eta Hirigintzako Zuzendaritzaren eskariz.



ERANSKINA

Prezio publikoak, Arabako parke natural, Garaioko Interpretazio Zentro eta Sobrongo Uraren Museoko harrera gunetan jendeari ematen zaizkio zenbait artikuluri dagozkienak.

1. artikulua.- Lotuta dagoen jarduera eta zenbatekoa.

Prezio publikoa ordaindu beharko da Ingurumen eta Hirigintza Sailak dauzkan aipatutako artikulua saltzeagatik.

Publikoarentzako salmenta prezioen zenbatekoa honela finkatu da:

ARTIKULUA	PSP (BEZa aparte) €	PSP (BEZa barne) €
Imana	0,83	1,00
Puzlea	4,13	5,00
Peluxezko animalia	4,96	6,00
Kutxatila	3,72	4,50
Pintura/klarion sorta	1,65	2,00
A5 libreta txikia	2,48	3,00
Oihalezko poltsa	3,31	4,00
Motxila sokaduna	4,13	5,00
Katilua	3,31	4,00
Kristalezko botila	3,31	4,00
Kantimplora/bidoia 400 ml	3,72	4,50
Euritakoa	7,44	9,00
Eskularruak	3,31	4,00
Lepo berogarria	3,31	4,00
Txanoa	4,13	5,00
Helduentzako zira	12,40	15,00
Umeentzako zira	9,92	12,00
Helduentzako kirol-jertsea	16,53	20,00
Umeentzako kirol-jertsea	12,40	15,00
Helduentzako elastikoa	8,26	10,00
Umeentzako elastikoa	6,61	8,00

2. artikulua.- Ordaintzera behartuta daudenak.

Ordaintzera behartuta daude publikoarentzako salgai jartzen diren artikulua erosten dituzten nola pertsona fisiko eta juridikoak hala zuzenbide publikoko erakundeak.

3. artikulua.- Ordaintzeko beharra eta modua.



Eskuratutako artikuluen prezioa ordaintzeko betebeharra sortzen da.

Parke natural, Garaioko Interpretazio Zentro, Sobrongo Uraren Museoko harrera guneetan edo Arabako Foru Aldundian ordainduko da, eskudirutan, ordaintzeko egingo den ordain gutunaren bidez edo banku transferentziaren bidez.

4. artikulua.- Kudeaketa eta administrazioa.

Arabako Foru Aldundiak kudeatu eta administratuko ditu foru dekretu honetan ezarritako prezio publikoak, eta haren zerbitzuek bideratuko dituzte.

5. artikulua.- Dekretu honek argitaratzen den egunaren biharamunean izango du indarra.